



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko irailaren 11

75. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Garesko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Garesko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 19an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Garesko Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Garesko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
 - IV.1. Garesko Udala (4. or.).
 - IV.2. Erakunde autonomoak: Udalaren Musika Eskola eta Lurzoruaren Udal Patronatua, eta udalaren enpresa publikoa (5. or.).
- V. Finantzen egoera-orriak (6. or.).
 - V.1. Udala (6. or.).
 - V.2. Udalaren Musika Eskola (6. or.).
- VI. Garesko Udalari buruzko iruzkin, ondorio eta gomendioak (12. or.).
 - VI.1. 2004ko aurrekontua (12. or.).
 - VI.2. 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (18. or.).
- VII. Erakunde autonomoei eta udal enpresa publikoari buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (21. or.).
 - VII.1. Udal Musika Eskola (21. or.).

VII.2. Lurzoruaren Udal Patronatua eta udalaren enpresa publikoa (22. or.).

VIII. Azken ondorioa (25. or.).

Garesko Udalak aurkeztutako alegazioak (26. or.).

Garesko Udalari buruzko behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioen erantzuna (27. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Comptos Ganberak Garesko Udalaren 2004ko ekitaldiari buruzko finantza-jardueraren fiskalizazioa egin du.

Lan hori udalaren osoko bilkurak 2004ko apirilaren 20an egindako eskariaren ondorioz egin da, eta Comptos Ganberak 2005erako onetsitako fiskalizazio programan sartu zen.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Garesko Udala Iruñeko merindadean dago. Udalaren 2004ko abenduaren 31ko eroldaren arabera, 2.612 biztanle ditu (2.550 biztanle 2004ko urtarrilaren 1eko eroldaren arabera).

Bere jarduera gauzatzeko, udalak ondoko erakunde autonomoak ditu:

- Udalaren Musika Eskola
- Lurzoruaren Udal Patronatua

2002an, udalak "Servicios urbanísticos de Puente La Reina/Gares, sociedad anónima" enpresa publikoa sortzea erabaki zuen, oso-osorik udalarena baita. Udal enpresa hori ez zen Merkataritza Erregistroan inskribatu.

2004an, udalak "Sociedad municipal de gestión de servicios Puente La Reina/Gares, SA" izeneko enpresa publikoa sortu zuen, Lurzoruaren Udal Patronatuaren menpean, "lehen sortu eta Merka-

taritza Erregistroan inskribatzeke gelditu zenari azken formalizazioa” ematearren.

Udala Uraren Ziklo Integrala Kudeatzeko Izar-beibarko Mankomunitatean eta Hiri Hondakin Solidoen Izar-beibarko Mankomunitatean dago sarturik, eta horiek hartzen dute bere gain, hurrenez hurren, uraren ziklo integrala nahiz hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua.

Garesko Udalak, orobat, parte hartzen du Izar-beibarko Zerbitzuen Mankomunitatean eta Erdialdeko Partzuergoan.

Udalak ezarria dauka kontabilitate publikoko sistema, irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretuak arautzen duen kontabilitate planarekin bat. Foru dekretu horren bidez Nafarroako toki administratzaile orako kontabilitate instrukzio orokorra onetsi zen.

II. HELBURUA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin eta Nafarroako toki administratzaile buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin bat, Garesko Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 2004ko ekitaldiko finantza jarduerari buruzko fiskalizazioa egin da.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: Nafarroako toki administratzaile buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administratzaile publikoen zerbitzuko langileen estatutuak, administratzaile-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitateei oro har aplikatzekoa zaien gainontzeko araudiak.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Garesko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoera eta udalaren nahiz haren menpeko erakunde autonomoen ekonomia-eragileria islatzea, oro har onarturiko kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen ekonomia- eta finantza-jardura legezkotasun printzipioaren arabera bete den ala ez azterzea.

d) Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Comptos Ganberak, bere jarduketa-programari jarraituz, Garesko Udalaren (hemendik aurrera soilik udala deituko diogu) eta haren menpeko erakunde autonomoen 2004ko ekitaldiaren legezkotasunari eta finantzei buruzko fiskalizazioa egin du.

Lanaren **norainokoa** udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 2004ko ekitaldiko kontuak aztertzeri heldu da. Kontu horiek ondokoei osatu behar dute: aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak, egoeraren balantzeak, irabazien eta galeren kontuak eta 272/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako kontabilitate instrukzio orokorrean ezarritako eranskinek.

Orobat aztertu dira sozietateak eta patronatuak 2002tik 2004ra bitarte egindako ekonomia-eragileriak –honakoak, funtsean: bi lurzatiren salmenta eta hirigintza-eskubideak, 2005ean eskritura publiko bidez formalizatu zirenak–.

Espainiako Estatuaren kanpo kontrolerako organo publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza printzipioa eta arauak aplikatuz egin da azterketa.

Fiskalizazioan barne kontrola eta aurrekontuko gastuen eta dirusarreraren, balantzearen eta irabazien eta galeren kontuaren lagin bat aztertu ditugu, probak eta inguruabarrekin bat etorri beharrezkotzat jo diren auditoretzako gainerako teknikak baliatuta.

Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen ekonomia-kudeaketa eta barne kontrola hobetze aldera gure ustez komeni diren iruzkin eta aholkuak eman ditugu txosten hau osatzen duten ataletan zehar.

Mugak:

Egindako fiskalizazioan aplikatutako auditoretzako prozedura eta probak, eta ondorioz gure lanaren norainokoak, ondoko mugak izan dituzte:

- Udalaren ondasunen inbentarioa 2001eko da, eta 2004ko abenduaren 31n balioetsi eta eguneratu gabe zegoenez, ezinezkoa izan da balantzeko ibilgetuan jasotako ondasunak egiaztatzea.

- Musika Patronatuaren 2004ko ekitaldiko kontuak ez dira egin kontabilitate instrukzio orokorrean ezarritako kontabilitatearen egoera-orriak baliatuta, 2004ko dirusarreraren eta gastuen zerrenda bat –ordainketa eta kobrantza egun adierazirik– baizik ez baitago jasota.

- Lurzoruaren Patronatuaren eta sozietate publikoaren kontabilitatea batera egiten dira, eta ez da bereizten zer dirusarrera eta zer gastu dago-

kion aipatu bi entitate horietako bakoitzari. Ez da egin ekitaldi bakoitzeko ekonomia-jardueraren urteko likidazioa, batera aurkeztu baitira 2002tik 2004ra eginiko eragiketa guztiak.

IV. IRITZIA

Egindako auditoretzaren ondorioz –arestiko atalean zehaztu ditugu azterketaren norainokoa eta mugak–, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. GARESKO UDALA

IV.1.1. 2004ko aurrekontuaren likidazioari dagokionez

- 250.000 euroko eskubideak aitortu dira aurrekontuko dirusarreraren 9. kapituluaren; 2004ko abenduan hitzartu zen diruzaintzako hiru hilabeteko kreditu bati dagozkio, eta aurrekontutik kanpoko eragiketa gisa kontabilizatu behar da.

- Zolatzeko proiektuko ordainsariak direla eta aitortu dira, oker aitortu ere, 52.232 euroko betebeharrak.

- “Kiroldegiko pista urbanizatzea” izeneko inbertsioan egiaz egindako gastua baino 34.953 euro gutxiago kontabilizatu dira. Zenbateko hori lurzorua patronatuaren kontabilitateari egotzi zaio.

IV.1.2. 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren eta ekonomia-emaitzaren agerpena

- 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantzeko ibilgetuaren saldoa ez dago egun horretara eguneratu eta baloratutako inbentarioan oinarrituta.

- Finantza-ibilgetua 285.139 eurotan gainbalioetsita dago.

- Zordunen saldoan 351.694 euroko zenbatekoa dago jasota; 2001 eta 2002 urteetako da, Lurzorua Udala Patronatuari dagokio, eta udalak kobratua du.

- Aplikatzeko dauden kontusailak izeneko balantzeko kontu zordunak 2.936.962 euroko saldoa du, eta ez du saldo hori osatzen duten kontuen egiazko egoera islatzen.

- Udalaren diruzaintza balitz bezala erregistratu da 136.314 euroko zenbateko bat, baina banketxetako saldoari dagokio, eta haren titularra Lurzorua Udala Patronatua da.

- Balantzearen pasiboan azaltzen den epe luzeko zorra udalak 2004ko abenduaren 31n zuen zor bizia baino 547.366 euro gutxiagokoa da.

IV.1.1 eta IV.1.2. ataletan azaldutako salbuespenen ondorioen garrantzia dela eta, Comptos Ganberak uste du Garesko Udalaren 2004ko kontuek ez dutela zintzo islatzen zein zen ondarearen, finantza-egoeraren eta aurrekontu-betetzearen egiazko irudia 2004ko abenduaren 31n, ezta 2004ko ekitaldian egindako eragiketena ere, aplikatzekoak diren aurrekontu eta kontabilitate printzipio eta arauekin bat.

IV.1.3. Legezotasuna

- 2004ko ekitaldiko kontu orokorra –udalaren, haren menpeko erakunde autonomoen eta udalaren enpresa publikoaren kontuek osatua– ez da egin kontabilitate instrukzio orokorrean ezarritako kontabilitatearen egoera-orri guztiak baliatuta, eta udalaren osoko bilkurak ez du onetsi Nafarroako toki ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraikiz, 2005eko irailaren 1a baino lehen alegia.

- Gastuetarako onetsitako kredituak 477.148 eurotan gainditu dira 2004ko ekitaldian, eta ez dira egin Nafarroako toki ogasunei buruzko Foru Legean ezartzen diren kasuan kasuko aurrekontu aldaketak.

- Aztertu diren administrazio-kontratazioetan kontratuei buruzko legedia behin eta berriz urratu dela egiaztatu da; izan ere, ez da kontraturik egiten, ez dira ezartzen behin betiko bermeak, eta kontratazioa egiteko jarraitu den modu edo prozedurarako ezarritako baldintzak bete izateari buruzko justifikazioa falta da espedienteetan, txosten honetako VI.1.7. eta VI.1.8. ataletan zehazten den bezala.

- Ez du udalaren osoko bilkurak erabaki 250.000 euroko diruzaintzako mailegu bat kontratatzea, eta ez da kontu-hartzailetzako txostenik egin aztertzeko udalak ahalmenik ote duen mailegu horretatik heldu diren betebeharrei aurre egiteko.

- Udalaren enpresa publiko bat eratu zuen udalak 2002an, baina ez zen Merkataritza Erregistroan haren izena eman. Ekitaldi horretan bi lurzati eta hirigintza eskubide saldu ziren 1.531.703 eurotan, eragiketa horiei aplikatzeko den legedia bete gabe saldu ere, txosten honetako 39. eta 40. orrialdeetan zehazten den bezala.

Comptos Ganberaren ustez, arestiko lerrokadetan azaltzen diren araudiaren ez-betetzak hain nabarmenak direnez, udalaren jardura ez da arlo horretako legedia indardunaren arabera izan.

IV.1.4. 2004ko abenduaren 31ko ekonomia-eta finantza-egoera

Iritzia emateko lerrokadetan azaldutako salbu-esprenak munta handikoak direnez gero, ezin dugu iritzirik eman udalaren 2004ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoerari buruz.

Halere, Garesko Udalak 2004ko abenduaren 31n 864.071 euroko epe luzeko zor bizia eta hiru hilabetean itzuli beharreko 250.000 euroko diruzaintzako mailegu bat zituela egiaztatu ahal izan dugu. Banketxeetako saldo erabilgarria 47.386 eurokoa zen 2004ko abenduaren 31n.

IV.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK: UDALAREN MUSIKA ESKOLA ETA LURZORUAREN UDAL PATRONATUA, ETA UDALAREN ENPRESA PUBLIKOA.

IV.2.1. Udalaren Musika Eskola

Kontabilitate instrukzio orokorrean ezarritako kontabilitateko egoera-orriak aurkeztu ez izanari buruz txosten honetako III. atalean azaldutako mugak muntakoak direnez, ezin dugu iritzirik eman Musika Patronatuaren 2004ko kontuak direla eta.

Halere, egindako fiskalizazioan kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta arauetako akats eta ez-betetzeak hauteman ditugu. Txosten honetako VII. atalean zehazten dira zeintzuk diren horiek.

Musika Patronatuak ez du legedia bete 2004ko ekitaldiko urteko kontuak kontabilitate instrukzio orokorrean ezarritako kontabilitateko egoera-orriak baliatuta egiteari dagokionez.

Patronatuaren egoera ekonomikoa dela-eta adierazten ahal dugu 2004ko abenduaren 31ko aurrekontu-emaizta 25.671 eurokoa izan zela, 171.476 euroko sortutako eskubideetatik eta 145.805 euroko gastuetatik heldu dena.

IV.2.2. Lurzoruaren Udal Patronatua eta udalaren enpresa publikoa

Kontabilitate instrukzio orokorrean ezarritako kontabilitateko egoera-orriak aurkeztu ez izanari buruz txosten honetako III. atalean azaldutako mugak muntakoak direnez, ezin dugu iritzirik eman Lurzoruaren Udal Patronatuaren eta udalaren enpresa publikoaren 2004ko kontuak direla eta.

Halere, egindako fiskalizazioan kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta arauetako akats eta ez-betetzeak hauteman ditugu. Txosten honetako VII. atalean zehazten dira zeintzuk diren horiek.

Lurzoruaren Udal Patronatuak eta udalaren enpresa publikoak ondoko arloetan ez dute bete legedia indarduna:

Lurzoruaren Udal Patronatuaren eta enpresa publikoaren 2004ko ekitaldiko urteko kontuak ez dira egin kontabilitate instrukzio orokorrean ezarritako kontabilitatearen egoera-orriak baliatuta, eta ez da 2004. urtearen itxiera egin.

Ez da Merkataritza Erregistroan inskribatu 2002an sortu zen udalaren enpresa publikoa, eta haren izenean egin dira lurzatiak eta hirigintza eskubideak 1.531.703 eurotan saltzeko eragiketak.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Ondotik aurkezten ditugu udalaren finantzen egoera-orriak eta Udalaren Musika Eskolaren aurrekontuaren likidazioa, Garesko Udalak taxutuak.

Erakunde autonomoi eta udalaren enpresa publikoari dagokienez, Udalaren Musika Eskolaren aurrekontuaren likidazioa baizik ezin dugu eman.

V.1. UDALA

Eraginkortasunaren kariatara, kontabilitatearen egoera-orri hauek azaltzera mugatuko gara:

- 2004ko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.

- 2004ko gastuen aurrekontuaren likidazioa, sailkapen ekonomiko-funtzionalaren arabera.

- Egoera-balantzea 2004ko abenduaren 31n.

- Diruzaintzako gerakina, 2004ko abenduaren 31n

V.2. UDALAREN MUSIKA ESKOLA

- 2004ko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.

Garesko Udala
2004ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orrria
(eurotan)

Dirusarrerak	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko eskubideak	Kobratutakoa	Kobratzeke dagoena	Betetze egoera	Betetakoa (%)	aitorturiko guztiaren gainekoa
Zuzeneko zergak	1	506.813	-	506.813	504.818	430.215	74.603	(1.995)	100	26
Zeharkako zergak	2	250.000	-	250.000	217.143	198.015	19.128	(32.857)	87	11
Tasak eta bestelako dirusarrerak	3	113.238	-	113.238	75.581	70.996	4.585	(37.657)	67	4
Transferentzia arruntak	4	579.649	90.937	670.586	688.258	601.681	86.577	17.673	103	36
Ondare-dirusarrerak	5	32.064	-	32.064	34.166	22.741	11.425	2.101	107	2
Inbertsio errealen besterentzea	6	140.125	-	140.125	23.069	23.069	-	(117.056)	16	1
Kapital-transferentziak	7	447.419	-	447.419	141.273	59.205	82.068	(306.147)	32	7
Finantza-aktiboen aldaketa	8	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Finantza-pasiboan aldaketa	9	-	-	-	250.000	250.000	-	250.000	-	13
Dirusarrerak, guztira		2.069.308	90.937	2.160.245	1.934.308	1.655.922	278.386	(225.938)	90	100

Gastuak	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko betebeharrak	Ordaindutakoa	Ordaintzeke dagoena	Betetze egoera	Betetakoa (%)	aitorturiko guztiaren gainekoa
Langileen lansariak	1	527.278	(27.773)	499.505	499.375	498.489	886	(131)	100	25
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2	512.204	111.426	623.630	623.470	525.465	98.005	(159)	100	31
Interesak	3	51.318	690	52.008	52.008	52.008	-	-	100	3
Transferentzia arruntak	4	113.517	6.765	120.282	120.282	69.712	50.570	-	100	6
Inbertsio errealak	6	766.568	(1.803)	764.765	624.875	468.066	156.809	(139.890)	82	31
Kapital-transferentziak	7	1.900	-	1.900	1.790	970	820	(110)	94	-
Finantza-aktiboen aldaketa	8	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Finantza-pasiboan aldaketa	9	96.523	1.632	98.155	98.155	98.155	-	-	100	5
Gastuak, guztira		2.069.308	90.937	2.160.245	2.019.955	1.712.865	307.090	(140.290)	94	100
Aldeak				(85.647)	(56.943)	(28.704)	(85.648)			

Garesko Udala

2004ko aurrekontuaren betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren arabera (eurotan)

Funtzionala	Deskribapena	Langileen gastuak	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	Finantza- gastuak	Transfer. arruntak	Inbertsio errealak	Kapital- transferentziak	Pasibo finantziarioak	Aitoruriko betebeharrak, guztira	Guztaren %
01	Zor publikoa	-	-	52.008	-	-	-	98.155	150.163	7
11	Gobernu-organoak	25.077	4.661	-	-	-	-	-	29.738	1
12	Administrazio orokorra	153.370	68.129	-	818	3.902	-	-	226.219	11
22	Segurtasuna eta babes zibila	-	9.748	-	-	-	-	-	9.748	-
31	Segurtasuna eta gizarte babesa	186.291	3.639	-	45.667	-	-	-	235.597	12
32	Gizarte-sustapena	17.770	-	-	-	-	-	-	17.770	1
41	Osasuna	-	1.408	-	3.300	-	-	-	4.708	-
42	Hezkuntza	19.640	168.294	-	29.096	123.830	-	-	340.860	18
43	Hirigintza	86.041	147.765	-	653	97.548	-	-	332.007	16
44	Erkidegoaren ongizatea	442	803	-	943	-	-	-	2.188	-
45	Kultura eta kirola	9.712	186.533	-	29.405	389.800	1.790	-	617.240	32
46	Erkidego eta gizarte arloko bestelako zerbitzuak	-	-	-	2.295	-	-	-	2.295	-
53	Nekazaritza eta abeltzaintzako azpiegitura oinarrikoa	-	11.251	-	-	9.795	-	-	21.046	1
57	Zerbitzuen sektoreko oinarriko azpiegiturak	-	-	-	8.104	-	-	-	8.104	-
61	Araubide ekonomikoa	-	6.494	-	-	-	-	-	6.494	-
62	Merkataritza-araubidea	1.033	-	-	-	-	-	-	1.033	-
75	Turismoa	-	14.303	-	-	-	-	-	14.303	1
91	Estatuarentzako transferentziak	-	441	-	-	-	-	-	441	-
	Guztira	499.376	623.470	52.008	120.281	624.875	1.790	98.155	2.019.955	100

Garesko Udala
2004ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

	Euroak		Euroak
IBILGETUA	3.299.136	ONDAREA	4.109.161
Ibilgetu materiala	1.964.859	Ondarea	4.369.655
Lurrak eta ondasun naturalak	(74.455)	Erabilera orokorrerako ondarea	(260.494)
Eraikinak	1.701.842		
Makinak, instalazioak eta tresnak	131.007	KAPITAL-DIRULAGUNTZAK	2.105.294
Altzariak	154.195	Jasotako kapital-dirulaguntzak	2.105.294
Informazioa prozesatzeko ekipoa	5.472		
Bestelako ibilgetu materialak	2.169	EPE LUZEKO ZORRAK	316.705
Instalazio konplexu espezializatuak	44.629	Jasotako maileguak	316.705
Ibilgetu ez-materiala	175.473	EPE LABURREKO ZORRAK	533.169
Azterlan eta proiektuak	175.473	Agindutako ordaintzen hartzekodunak	500.039
		Entitate publikoak	8.447
Erabilera orokorreko inbertsioak eta ondasunak	783.715	Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak	16.811
Lurrak eta ondasun naturalak	69.348	Aplikatzeko dauden kontusailak	7.872
Azpiegiturak eta erabilera orokorreko ondasunak	714.367		
Herri ondasunetan eginiko inbertsioak	29.850	EMAITZAK	864.022
		Ekitaldiko emaitzak	864.022
Ibilgetu finantzarioa	345.239		
Maileguak	225.200		
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	120.039		
ZORDUNAK	1.519.706		
Aitorturiko eskubideen zordunak	1.508.249		
Aurrekontukoak ez diren beste zordun batzuk	11.457		
FINANTZA- KONTUAK	3.109.509		
Aplikatzeko dauden kontusailak	2.936.961		
Bankuak eta kreditu-entitateak	172.548		
Aktiboa, guztira	7.928.351	Pasiboa, guztira	7.928.351

Garesko Udala

Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2004ko abenduaren 31n
(eurotan)

1. (+) Ekitaldiaren amaieran kobratzeko dauden zordunak	915.842
Dirusarreraren aurrekontukoak. Aurrekontu arrunta	278.385
Dirusarreraren aurrekontukoak. Aurrekontu itxiak	1.229.864
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	11.457
(-) Aplikatzeko dauden dirusarrerak	(7.872)
(-) Bilketa zaileko eskubideak	(595.992)
2 (-) Ekitaldiaren amaieran ordaintzeke dauden hartzekodunak	(519.468)
Gastuen aurrekontukoak. Aurrekontu arrunta	(307.091)
Gastuen aurrekontukoak. Aurrekontu itxiak	(192.949)
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	(25.258)
(+) Aplikatzeko dauden gastuak	5.830
3 (+) Ekitaldiaren amaieran diruzaintzan dauden funts likidoak	172.547
4 Finantzabide atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintzako gerakina	-
5 Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (1-2+ 3+4)	568.921
Diruzaintza-gerakina, orotara	568.921

Udalaren Musika Eskola

Dirusarriren eta gastuen egoera
(eurotan)

Dirusarriren kapituluak	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorituriko eskubideak	Kobratuta, %	Kobratzeke dagoena	Betetze egoera	Betetakoa (%)	% aitorturiko guztiaren gainekoa
Tasak eta bestelako dirusarriak.	3	98.200	-	98.200	82.715	82.715	-	(15.485)	84	48
Transferentzia arruntak	4	80.061	-	80.061	88.761	56.527	32.234	8.700	111	52
DIRUSARRERAK, GUZTIRA		178.261	-	178.261	171.476	139.242	32.234	(6.785)	96	100
Gastuen kapituluak	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitoritutako betebeharrak	Ordainduta, %	Ordaintzeke dagoena	Betetze egoera	Betetakoa (%)	% aitorturiko guztiaren gainekoa
Langileen lansariak	1	150.463	-	150.463	123.970	123.970	-	(26.493)	82	85
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	26.028	-	26.028	11.202	11.202	-	(14.826)	43	8
Interesak	3	500	-	500	1.114	1.114	-	614	223	1
Transferentzia arruntak	4	270	-	270	355	355	-	85	131	-
Inbertsio errealak	6	1.000	-	1.000	2.718	2.718	-	1.718	272	2
Finantza-pasiboen aidaketa	9	0	-	-	6.446	6.446	-	6.446	-	4
GASTUAK, GUZTIRA		178.261	-	178.261	145.805	145.805	-	(32.456)	82	100
ALDEAK		-	-	-	25.671	(6.563)	32.234	25.671		

VI. GARESKO UDALARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA GOMENDIOAK

Atal honetan azaltzen dira aztertutako kontabilitatearen legezketasunari eta egoera finantzarioari buruz eginiko fiskalizazio lanetik heldu diren ondorio nagusiak, bai eta udalaren finantza-jardueraren kudeaketa hobetze aldera ganbera honek egiten dituen gomendioak ere.

VI.1. 2004ko AURREKONTUA

- 2004. urterako dirusarreraren eta gastuen aurrekontuaren hasierako aurreikuspenak 2.069.000 eurokoak ziren. 2004. urteko ekitaldiko aurrekontua 2004ko maiatzean onetsi zen hasiera batez, baina behin betiko onetsitako aurrekontua ez zen argitaratu, eta Toki Ogasunei buruzko Legeak ezartzen duenez, beharrezkoa da hala egitea aurrekontua indarrean sar dadin.

- 2004ko ekitaldian ez zen aintzat hartu onetsitako hasierako gastu-kredituen izaera mugatzailea eta loteslea. Hala, 477.148 eurotan gainditu ziren, kasuan kasuko aurrekontu-aldaketen espedientea tramitatu gabe, Toki Ogasunei buruzko Legean eta udalak onetsitako aurrekontua betetzeko oinarrietan ezarritakoari jarraikiz. 477.148 euroko zenbateko horretatik, 336.719 euro inbertsioen kontusailei buruzkoak dira.

Hona gure gomendioak:

Aurrekontu orokorra behin betiko onestea hori aplikatuko den ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehenago eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Aurrekontuan ezarritako gastu-kredituen izaera mugatzailea eta loteslea aintzat hartzea edo gastuen aurrekontuan beharrezkoak diren aldaketak egitea eta espedientea tramitatzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legean eta aurrekontua betetzeko oinarrietan hura onesteari, argitaratzeari eta esku-hartzeari buruz ezarritakoari jarraikiz.

VI.1.1. 2004ko aurrekontuaren betetzearen azterketa.

Udalaren 2004ko aurrekontuaren betetze egoera finantzen egoera-orrien V. atalean agertzen da. 2004ko aurrekontuaren betetzearen azterketan ez da kontuan hartu dirusarreraren 9. kapituluaren kontabilizatutako 250.000 euroko diruzaintzako mailegua.

- 2004ko ekitaldian **aitorturiko eskubideek** 1.684.000 euro egiten dute, hasierako aurreikuspenen ehuneko 81; 2003ko ekitaldian sortutakoak baino ehuneko bi gehiago egiten dute.

2004ko ekitaldian, udalaren baliabideak tributu bidezko dirusarreretatik eta transferentzia arruntetatik heldu dira nagusiki. Horiek 2004an sorturiko dirusarreraren ehuneko 53 eta 41 egiten dute, hurrenez hurren.

2004ko ekitaldian **aitorturiko betebeharrak** 2.020.000 euro jotzen dute; betetze maila gastuen hasierako kredituen ehuneko 98 da. 2003ko ekitaldiarekin alderatuz gero, ehuneko zazpi murriztu dira.

2004ko gastu esanguratsuenak ondasun eta zerbitzu arruntenak, inbertsioenak eta langileriarenak dira; hain zuzen, udalak aitorturiko betebeharraren ehuneko 31, 31 eta 25 egiten dute, hurrenez hurren.

- 2004ko aurrekontua betetzearen ondorioz, 335.648 euroko **defizita** sortu da. Emaiza hori eskubideen eta aitorturiko obligazioen arteko aldearen ondoriozkoa da eta 2004ko ekitaldian eginiko inbertsioen finantzaketa falta dela eta sortu da.

VI.1.2. Tributu bidezko dirusarrerak eta prezio publikoak

2004ko ekitaldian jasotako tributu bidezko dirusarrerak eta prezio publikoek 797.542 euro egiten dute, aurreko ekitaldian baino ehuneko bederatzire gehiago.

Ondoko taulan jasotzen dira 2003 eta 2004. urteetan sorturiko zerga nagusiak eta horien zenbatekoa (euroak, milakotan), aipatu ekitaldietan aitorturikoa:

Tributu-figura	(euroak, milakotan)	
	2004	2003
Zuzeneko zergak		
Hirilurraren gaineko kontribuzioa	303	287
Landalurraren gaineko kontribuzioa	19	19
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	51	52
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	39	47
Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	93	79
Zeharkako zergak		
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	183	217
Tasak		
Administrazio izapidetzeak	19	13
Jabari publikoko zoru, hegalkin eta zorupekoen erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia	15	21

Nabarmena da hirilur-kontribuzioaren eta erai-kinen gaineko zergaren pisu berezia, gainontzeko tributu-figurak gainditzen baitituzte.

Udalak bildutako zergei dagokienez, ondoko taulan jasotzen dira udalak zerga bakoitzean aplikatzen dituen karga-tasak, Toki ogasunei buruzko foru legeak baimendutako gehienekoekin alderaturik:

Tributu-figura	Ehunekoa/adierazlea	
	Udala	Toki ogasunei buruzko Legea
Hirilurraren gaineko kontribuzioa	0,299	0,10 - 0,50
Landalurraren gaineko kontribuzioa	0,80	0,10 - 0,80
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,20	1 - 1,4
Lurren balio-igoeraren gaineko zerga	14	8 - 20
<ul style="list-style-type: none"> • 5 urte bitartean • 10 urte bitartean • 15 urte bitartean • 20 urte bitartean 	<ul style="list-style-type: none"> 2,75 2,65 2,65 2,65 	<ul style="list-style-type: none"> 2,2 - 3,3 2,1 - 3,2 2,0 - 3,1 2,0 - 3,1
Eraikinak, instalazioak eta obrak	3,5	2 - 5

Tributu bidezko dirusarrerak eta prezio publikoak aztertu ondoren, ondokoa egiaztatu da:

- Lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari dagokionez, 2004. urtean sorturiko 1.200 euroko zenbatekoa ez da kontabilizatu.

- Administrazio izapidetzeei buruzko tasari dagokionez, ehuneko 0,35eko karga-tasa aplikatzen da, udalak onetsitakoa 0,33koa bada ere.

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Tributu-figuren errolden aldaketak formalki onestea.*

- *Ekitaldi bakoitzean ekitaldian bertan sortutako gastuak kontabilizatzea.*

- *Zerga bakoitzerako onetsitako karga-tasak aplikatzea.*

- *Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterketak egitea.*

VI.1.3. Ohiko transferentziengatik dirusarrerak.

Udalak 2004ko ekitaldian ohiko transferentziengatik jasotako dirusarrerak 688.258 euro egiten dute. Ordainagiri horien ehuneko 70 Toki Ogasunen Funtsarenak dira.

Dirusarrera horiek aztertutik, antzeman da udalak ez duela ez bidaltzen ez kobratzen Musika Eskolak erabiltzen duen aretoaren alokairua; hala ere, Musika Eskolak kontzeptu horrengatik ordaindutako 9.061 euro kontabilizatu dira.

VI.1.4. Ondare dirusarrerak

Udalak 2004ko ekitaldiak sorturiko ondare dirusarrerak 34.165 euro egiten dute eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitorturiko eskubideak, 2004
Banketxeetako kontuen korrituak	23
Ondasun higiezin errentamendua	11.678
Gordailuak eta hornigailuak	2.404
Herrilurren probetxamendua	20.060
Ondare dirusarrerak, guztira	34.165

Dirusarrera horiek aztertu ondoren, ondokoa egiaztatu da:

- Ez da jasota ageri San Pedroko udal etxebizitzaren errentamendu kontraturik, eta udalak ez du jasotzen dituen alokairuen ordainagiririk ematen.

Hona gure gomendioak:

- *Udalak alokatzen errentan ematen dituen ondasun higieziinei buruzko errentamendu kontratuak egitea.*

VI.1.5. Kapital transferentziak eta bestelako kapital dirusarrerak

2004ko ekitaldian sorturiko kapital transferentziak eta bestelako kapital dirusarrerak 141.272,54 euro egiten dute eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitorturiko eskubideak, 2004
Eskuladako ikastetxean obrak egiteko dirulaguntza	82.067
Lagileak kontratatzeke dirulaguntza	4.455
Kapital-transferentziak	86.522
Aprobetxamendu unitateengatik konpentsazioa	54.750
Bestelako kapital dirusarrerak	54.750

Aprobetxamendu unitateengatik konpentsazioari buruzko dirusarrerak aprobetxamendu unitateen gehikuntzaren ondoriozkoak dira, hain zuzen, etxebizitza libreei babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazioa eman izanagatik.

Alkatetzak 2004. urtean emandako ebazpen baten bidez, hasieran babes ofizialeko etxebizitza izatea xede zuten etxebizitzaren jabe ziren bost pertsonari bakoitzak 10.950 euro ordaintzeko eskatu zitzaizkien, "babes ofizialeko" kalifikazioa erdiesteko izapideak ez egiteagatik; izan ere, hala egiteko betebeharrak zuten, "Osabidea" izeneko tokian egitako sutapenerako ezarritako baldintzei jarraituz. Aipatu zenbatekoa 2001. urtean zehaztu zen.

VI.1.6. Langileria gastuak

2004ko abenduaren 31n sorturiko udaleko langileria gastuak 499.375 euro egiten dute, eta udalaren guztizko gastuen ehuneko 25 dira. Gastu hori ehuneko 21 gehitu da aurreko urtekoaren aldean. Kontzeptu hauei dagozkie:

Deskribapena	Aitorturiko betebeharrak, 2004
Udalbatzako kideen ordainsariak	25.077
Funtzionarioak	206.132
Aldi baterako lan-kontratudunak	81.875
Gizarte kuotak	186.291
Langileria gastuak, guztira	499.375

2004. urterako onetsitako plantilla organikoan ondoko lanpostuak agertzen dira:

	Unitate kopurua	Maila	Egoera
Funtzionarioak			
Idazkaria	1	A	Aktiboa
Administrari ofiziala	3	C	Aktiboa
Zerbitzu anitzetako langilea	5	E	Aktiboa
Lan kontratadunak			
Euskara teknikaria	1	B	Aktiboa
Kontu-hartzailea	1	B	Lanpostu hutsa
Aparejadorea	1	B	Lanpostu hutsa
Udal bulegoetako garbitzailea	1	D	Lanpostu hutsa

Langileria gastuen fiskalizazioari dagokionez, ondoko ez-betetze hauek antzeman dira:

- Udalak erabaki zuen alkate karguarentzat arduraldi partziala eta urteko 21.035 euroko ordainsaria ezartzea, Gizarte Segurantzako enpresa-kuota barne, eta Gizarte Segurantzako alta

egoera eskatzea. Alkateari 2006ko urtarrilaren 19an eman zioten alta Gizarte Segurantzari, eta horrek eragina du 2004ko urtarrilaren 1etik.

- Ordainsari horren gainean ez da PFEZaren ez Gizarte Segurantzaren kenketa egiten.

- Langileek 21.016 euro egiten duten aparteko orduak egin dituzte, baina ordu horiek ez ditu inork onetsi ez eta horretarako baimenik eman ere. Ordu horiek dira udaleko langileek jaietan, azokako arreta lanetan, osoko bilkuraren eta batzordeen bilkuretara eginikoak. Aparteko orduak ordaintzen direnean, ez da PFEZaren kenketarik aplikatzen.

Langileria arloko gomendio orokorrak hauexek dira:

- *Langileei buruzko espedienteetako dokumentazioa osatzea, kasuan kasuko langilearen egoera pertsonala eta harekiko emandako administrazio ekintzak jaso ditzaten.*

- *Aparteko orduak egitea baimendu eta onetsi behar du ordu horiek egiten dituenaz beste pertsona batek, eta kasuan kasuko PFEZaren kenketa egin behar da.*

- *Alkatearen ordainsaria eta zinegotziek jasotzen dituzten dietak PFEZari loturiko errendimenduak dira: hori dela eta, indarrean dagoen araudia aplikatu behar da. Dieta horiek soilik ordaindu behar dira kide diren organo kolegiatuen bilkuretara joaten badira.*

- *Alkatearen ordainsariak sortzapenaren arabera kontabilizatzea, kontuan hartu gabe noiz ordaintzen diren.*

VI.1.7. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea

2004an zerbitzuen eta ondasun arruntak erosteko udalak aitorturiko betebeharrak –aurrekontuaren bigarren kapituluak– 623.470 euro egin dute, aurreko ekitaldian baino ehuneko 41 gehiago. Gehikuntza horren arrazoi nagusiak dira herriko festetarako gastua handitzea, 0 eta 3 urteko haurren ikastetxea kudeatzeko gastuak eta ikastetxeko garbiketaren gastua.

2004. urtean sorturiko zerbitzuen eta ondasun arruntak erosteko gastu garrantzitsuenak, zenbatekoaren arabera, honako kontzeptu hauei dagozkie:

Deskribapena	Aitorturiko betebeharrak 2004	%, 2. kapituluaren gainean
Herriko festak	80.039	% 13
0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxearen kudeaketa	76.143	% 12
Ikastetxearen garbiketa	43.458	% 7
Argiteria publikoaren kontsumoa	33.226	% 5
Parke eta lorategien mantentzea	32.220	% 5
Hirigintza arloko aholkularitza	24.009	% 4
Argiteria publikoaren mantentzea	20.292	% 3
Donejakue urteko ekitaldiak	19.104	% 3

Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuak aztertutik, ondoko ondorioak atera dira:

- Lorategiak zaintzeko lanak zuzenean kontratatu dira, Kontratuei buruzko Foru Legean ezarritako printzipioak eta prozedurak aintzat hartu gabe. 2004ko ekitaldian lorategiak zaintzeko lanengatik sorturiko gastuak 46.925 euro egiten dute, eta kontusail bat baino gehiagotan kontabilizatu dira azpiegitura publikoen zainketa gastu bezala, baina lan horiek egiaz hobekuntzak izan dira, eta inbertsioen kapituluaren kontabilizatu beharko lirake.

- 2004ko ekitaldian, hirigintzari buruzko aholkularitza zerbitzuek 24.009 euro egiten dute; hain zuzen, 565 ordu, bakoitza 35,50 eurotan. Zerbitzu horiek 1989. urtetik eman dira. Urte hartan hirigintza arloko aholkulariarekin sinatutako kontratuan ezartzen denez, arduraldia hilabetean 20 ordukoa izanen da, eta prezioa, berriz, “aldi bakoitzean tarifa ofizialek ezartzen dutena”. Hain zuzen, prezioa 18,51 eurokoa zen 1989. urtean, eta ez dago jasota kontratuaren aldaketarik egon denik arduraldiari edo prezioari dagokienez.

Kontratu horren iraupenak legeak laguntza teknikoa emateko kontratuetarako ezartzen duen gehieneko epea –sei urte, luzapenak barne– gainditu du.

- Casa del Vinculoko garbiketa zerbitzuaren kostuak 2.226 euro egin zuen 2004. urtean, eta lan hori kontraturik gabeko langileek egin zuten urte horretan bertan. Ez dira kontrolatu fakturatutako orduak eta ez da PFEZaren atxikipenik egin.

- “Donejakue urteko ekitaldiak” izeneko kontusailak udal aterpeari dagozkion gastuak jasotzen ditu; gastu horiek 19.104 euro egin zuten 2004. urtean. Kontzeptu hauei dagozkie:

* Konponketak: 15.889 euro.

* Aterpearen kudeaketa gastuak 2004ko ekainaren 25etik irailaren 26ra bitartean: 1.774 euro.

Zenbateko horretan era konpentsatuan biltzen dira gastuak (2.306,4 euro) eta dirusarrerak (532 euro). Aterpea kudeaketa interesatuaren bidez kudeatzen da. Horren bidez, esleipendunak udalari ematen dio bertan emandako gauengatik dirusarreraren % 50 eta mantenuagatik dirusarreraren % 5; aldiz, udalak kuota finko bat ordaintzen du langileen gastuengatik, haiek eginiko orduen eta kontratuan ezarritako orduko prezioaren arabera.

* Langileek 2004ko uztailean eginiko orduak: 1440 euro.

Ez da eratu kontratuan ezarritako 300 euroko fidantza.

- 2004. ekitaldian honako zerbitzu hauek esleitu dira:

Deskribapena	Adjudikazioaren prezioa
Laguntza eta lankidetzak juridikoa	Berankortasun errekaruaren % 50, 30 euro gutxienez
0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxearen kudeaketa	140.961,15 euro 2004ko irailaren 1etik 2005eko uztailearen 31ra
Ikastetxearen garbiketa	47.716 euro 2004ko irailaren 1etik 2005eko ekainera

Horiek azterturik, hauxe nabarmendu nahi dugu:

Laguntza eta lankidetzak juridikoaren zerbitzuak prentsan iragarritako prozedura negoziatuaren bitartez esleitu ziren 2004ko otsailean, eta kontratua 2006ko urtarrilean sinatu zen. Esleipendunak ez du eratu udalaren aldeko 1.500 euroko bermea.

Ez da eratu udalaren alde ezarritako 4.645,76 euroko fidantza 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxea kudeatzeko. Azaroaz geroztik, udalak bere gain hartzen ditu haurtzaindegiko kuotengatik dirusarrerak. Ordura arte, ordea, esleipendunek kobratzen zituzten zuzenean, eta ondoren udalak esleipendunei eginiko likidaziotik kentzen zuen zenbateko hori.

Eskualdeko ikastetxea garbitzeko zerbitzuaren esleipen-hartzaile den enpresarekin ez zen kontraturik formalizatu. 2005. urtetik aurrera, “Gestión de servicios Puente La Reina/Gares, SA municipal” izeneko udal sozietate anonimoak kudeatzen du ikastetxearen garbiketa.

Hona gure gomendioak:

- *Administrazio-kontratazioaren arloan publikitatearen eta lehiakortasunaren printzipioak aplikatzea, Kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legean ezarritako dokumentuek osatutako kontratazio-espeditzea izapidetzea, eginiko kontratuak administrazio agirian formalizatzea legeak ezarritako epean, esleipendunei kasu bakoitzean ezarritako behin betiko bermeak era ditzaten eskatzea eta sei urteko gehieneko epemuga errespetatzea, luzapenak barne, laguntza teknikoa emateko kontratuetan, betiere aipatu foru legean ezarritakoari jarraikiz.*

tzea, Kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legean ezarritako dokumentuek osatutako kontratazio-espeditzea izapidetzea, eginiko kontratuak administrazio agirian formalizatzea legeak ezarritako epean, esleipendunei kasu bakoitzean ezarritako behin betiko bermeak era ditzaten eskatzea eta sei urteko gehieneko epemuga errespetatzea, luzapenak barne, laguntza teknikoa emateko kontratuetan, betiere aipatu foru legean ezarritakoari jarraikiz.

- *Ondasunen ahalmena edo errendimendua handitzea edo erabilera-bizitza luzatzea dakarten konponketa eta hobekuntzak inbertsio gisa kontabilizatzea.*

- *Gastuen eta dirusarreraren zenbateko osoa kontabilizatzea, eta ez era konpentsatuan.*

VI.1.8. Inbertsioak.

2004ko ekitaldian eginiko inbertsioek 624.875 euro egiten dute, eginiko gastu guztien ehuneko 31 alegia. 2003ko ekitaldiarekin alderatuz gero, ehuneko 37 egin dute behera.

2004ko ekitaldiko inbertsio garrantzitsuenak honako hauek dira:

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak, 2004
Kirol pista	0	178.274
Casa del Vinculoko altzariak	36.061	131.795
Ikastetxeko berogailua berritzeko lanak	85.724	80.088
Hirurteko Planeko obrak	470.611	78.349
Kirol pista urbanizatzea	42.071	75.511

Gastu horiek azterturik, ondoko ondorioak atera dira:

- **Kirol pistaren gastua**, 2004. urtean sortu zena eta guztira 178.274 euro egiten duena, pista amaitzeko eta funtzionamenduan jartzeko eginiko lanei dagokie; izan ere, esleipenduna zen aldi baterako enpresen batasunak ordainketak eten zituen 2004an, eta, horren ondorioz, lan horiek ez zituen egin. Lan horiek zuzenean kontratatatu zituen udalak, publizitate eta lehia printzipioak bete gabe eta kontratazio espedienterik izapidetu gabe.

Obra horiek 2001eko abenduan esleitu ziren, 1.124.110 eurotan. Lanak egiteko epea, berriz, hamaika hilabete eta erdikoa zen. Lanak 2005eko abuztuan amaitu ziren eta kostu osoa, funtzionamenduan jarri artekoa, 1.295.450 eurokoa izan zen.

- **Casa del Vínculorako altzarien eroketa** hiru eskaintza eskatu izana jasotzen duen kontratazio espedienterik izapidetu gabe egin zen. Bestalde, publizitaterik gabe negoziaturiko prozeduraren bidez esleitzeko Kontratuei buruzko Foru Legeak ezarritako baldintzak ez ziren betetzen.

Casa del Vínculo altzariz hornitzea aipatu eraikina egokitzeko eginiko jarduketetako bat da, eta hala aurreikusten da 2004ko maiatzaren 19an Herri Lan Departamentuak eta udalak eraikin hori eraberritzeko lanen lehen fasea betetzeko sinatu zuten lankidetzak hitzarmenean.

Lankidetzak hitzarmen horretan ezartzen denez, udala izanen da proiektua, obrak eta obren zuzendaritza kontratatutako dituen, eta hiru jarduketak horietarako aurrekontuak 71.898 euro egiten du, % 100ean Nafarroako Gobernuak finantzatuta.

Proiektua 2004ko martxoan idatzi zen, eta bertan hornitzaileen gaineko jarraibide batzuk jasotzen dira, besteak beste, altzarien hornitzaileei buruzkoak. Udalak 2004ko irailaren 16an eginiko osoko bilkuran aho batez onetsi zen aipatu hitzarmena, "ondokoak biltzen dituen proiektuaren arbera:

* Eginiko enkarguak (aldeaz aurretik Nafarroako Gobernuak Kultura eta Herri Lan Departamentuek hautatuta): obren proiektua eta lanen zuzendaritza, zurgin lanak, argiteria eta altzariak," aipaturiko jarduketetako bakoitza eginen duen hornitzailearen aipamenarekin.

- 2004ko ekitaldian, 470.611 euroko aurrekontua duen "**Hiru urteko planaren obrak**" izeneko kontusailean erregistratu da zolatzeko proiektuaren idazketari dagokion ordainsaria. Ordainsari horrek 26.117 euro egiten du eta oker kontabilizatu da -3 aldiz, alegia-; hori dela eta, kontzeptu horregatik kontabilizaturiko gastua egiaz sorturikoa baino 52.232 euro handiagoa da.

Proiektua idazteko laguntza teknikoa eta zolatzeko lanen zuzendaritza teknikoa 37.309 eurotan esleitu ziren, udalaren osoko bilkurak 2004ko apirilean onetsitakoari jarraikiz. Ez dago jasota esleipenaren prezioaren % 4ko bermea eratu izana.

Zolatzeko lanak 2004ko hiru urteko planaren barruan sartu ziren, 2005. urtean egiteko, 428.873 euroko aurrekontuarekin. Nafarroako Gobernuak zenbateko horren % 71,75 finantzatu zuen.

- **Kirol pista urbanizatzeari dagokionez**, 29.774 euroko gastua kontabilizatu da. Gastu hori Mena fundazioarekin zerikusia duten obrei dagokie, eta ez dute aipatu urbanizatzearekin zerikusirik. Bestalde, udalak ez du kontabilizatu kirol pistaren urbanizatze lanei dagokien gastua, 34.953 eurokoa. Aldiz, gastu hori Lurraren Patronatuan erregistratu da.

Hona gure gomendioak:

- *Administrazio-kontratazioaren arloan publizitatearen eta lehiakortasunaren printzipioak aplikatzea.*

- *Administrazio kontratazioetarako Kontratuei buruzko Foru Legean ezarritako dokumentuek osatutako kontratazio-espedientea izapidetzea, eta kontratu horiek aipatu legean ezarritako prozedura eta bideak erabiliz esleitzea.*

- *Udalak aurreikusitako inbertsioak egiaztatze-ko eta inbertsio horiek finantzatzeko kasuan kasuko dirulaguntzak lortzeko ezarritako dokumentazioa epe barruan izapidetzea eta aurkeztea.*

- *Gastuak dagozkien kontusailean kontabilizatzeta, izaera ekonomiko eta funtzionalaren arabera.*

VI.1.9. Transferentzia arruntetako gastuak

2004ko ekitaldian sorturiko transferentzia arruntetako gastuak 120.282 euro egiten dute eta honako entitateei eman zaizkie:

Deskribapena	Aitorturiko betebeharrak 2004
Musika Eskola (erakunde autonomoa)	27.000
Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitatea	45.667
Familiak	2.096
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	37.415
Partzuergoa	8.104
Emandako transferentzia arruntak, guztira	120.282

Gastu horiek azterturik, egiaztatu da udalak transferentziak emateko erabilitako prozedurak ez dituela betetzen aurrekontua betetzeko oinarrietan ezarritako betekizunak; horren haritik, eskatzaileak ez du erantsi jarduera-proposamena edo emandako funtsak justifikatuko dituen programa, ezta aldeztu aurreko oroit-idazkirik ere, dirulaguntza egiaz eginiko jarduketengatik bakarrik emateko betekizun gisa.

Udalak Musika Eskolari egin beharreko ekarpena ez da ordaindu. 2004ko abenduaren 31n ordaintzeke daude 2004. urteari dagokion ekarpena -27.000 euro, alegia-, baita 2001, 2002 eta 2003. urteei dagozkienak ere, guztira 71.752 euro egiten dutenak.

Hona gure gomendioak:

- *Dirulaguntzak egiaz aplikatu izanaren justifikazioa eskatzea dirulaguntza horien hartzaileei, aurrekontua betetzeko oinarrietan ezarritakoari jarraikiz.*

- *Musika Eskolaren egoera erregularizatzea.*

VI.2. 2004ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

2004ko abenduaren 31ko udalaren egoerabalantzea txosten honetako V. atalean azaltzen da. Ondoren azaltzen dira aztertutako balantze-arlo nagusien finantza-berrikuspenetik ateratako ondorioak. Haiekin batera, behar diren gomendioak ere ematen dira:

VI.2.1. Ibilgetua

Udalaren ibilgetuak, 2004ko abenduaren 31n, 3.299.136 euroko saldoa agertzen du. Hona:

Ibilgetua	Zenbatekoa, 2004ko abenduaren 31n
Ibilgetu materiala	1.964.859
Ibilgetu ez-materiala (azterlanak eta proiektuak)	175.473
Azpiegitura eta erabilera orokorreko ondasunetako inbertsioak	783.715
Herri ondasunak	29.850
Ibilgetu finantzarioa	345.239
Ibilgetua, guztira	3.299.136

Ibilgetuaren arloa azterturik, ondoko ondorioak atera dira:

- Ez dago udalaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen inbentario baloratu eta eguneraturik. Udalaren jabetzapeko ondasunen inbentarioa 2001ekoa da.

- Ibilgetu finantzarioa ondoko kontuek osatzen dute:

* Akzioak: 120.010 euro. Akzio horiek udalak, Lurraren Patronatuaren bidez, 2002. urtean "Servicios urbanísticos de Puente la Reina" udal sozietatea eratzeko ekarpenari dagozkio. Ekarpenera hura 60.101 eurokoa izan zen; horrenbestez, 59.939 euro gehiago kontabilizatu dira ibilgetu finantzarioko 2. ataleko akzioen kontuan.

* Lurraren Patronatuari emandako maileguak; zenbatekoa: 225.200 euro. Mailegu horiek ez dira agertzen Lurraren Patronatuak udalarekin duen zor gisa.

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Udalaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratu eta eguneratua osatzea, eta inbentario hori balantzearen ibilgetuarekin lotzea ahalbidetuko duten prozedurak ezartzea.*

- *Ibilgetu finantzarioaren saldoa aztertu eta zuzentzea, hura osatzen duten kontuen egoera erreala isla dezan.*

VI.2.2. Zordunak

Zordunen saldoak, 2004ko abenduaren 31n, 1.519.706 euro egiten du, eta kontzeptu hauei dagokie:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Urtea
Kirol pista egiteko dirulaguntza. Nafarroako Gobernua	206.027	2002
Lurzoruaren Udal Patronatuaren ekarpena	351.694	2001 eta 2002
Inbertsioetarako kreditua	73.623	2002
Industrialdeko lurzatiaketaren kostuaren itzulketa	61.604	2001
Hiri eta landa kontribuzioa	120.483	1984tik 1995ra

Lurraren Patronatuak udalarekin duen zorraren saldoa, udaleko kontabilitatearen arabera, udalak 2001ean eta 2002an patronatuari eginiko kapital ekarpenei dagokie; hain zuzen, 270.455 eta 81.239 euro, hurrenez hurren. Ekarpene horiek ez dira azaltzen patronatuaren kontabilitatean.

Hona gure gomendioak:

- *Zordunen saldoa aztertzea, kontu horren udalak kobratzeke dituen eskubideen zenbateko erreala isla dezan.*

- *Tributu-zorren bilketa premiamendu bidez kudeatzea, kobratzeko borondatezko epea amaitzen denetik aurrera, eta kasuan kasuko premiamendu errekarria eta berandutza-interesak aplikatzea.*

VI.2.3. Finantza-kontuak.

Finantza-kontuen sailak 3.109.509 euroko saldoa agertzen du 2004ko ekitaldiaren amaieran, eta kontzeptu hauei dagokie:

	Saldoa 2004ko abenduaren 31n
Aplikatzeko dauden kontusailak	2.936.962
Bankuak eta kreditu-entitateak	172.547
Finantza kontuak	3.109.509

Zordunak	Zenbatekoa 2004ko abenduaren 31n
2004ko aurrekontuko zordunak	278.385
2003ko ekitaldia baino lehenagoko aurrekontuetako zordunak	1.229.863
Ordainketa bikoiztuak	9.248
Aurrekontukoak ez diren beste zordun batzuk	2.210

Zordun guztietatik, 595.992 bilketa zailekotzat jo dira, eta diruzaintzako gerakinetik kendu dira.

2003ko ekitaldia baino lehenagoko zordunetan -1.229.863 euro- 1984tik 2003ra bitarteko jaso gabeko dirusarrerak sartzen dira. Jaso gabeko dirusarrera horien artean, hauek agertzen dira, besteak beste:

Balantzearen arlo hori aztertu ondoren, ondokoa antzeman da:

- “Aplikatzeko dauden kontusailak” izeneko kontuaren saldoa, 2.936.962 euro, 2001eko ekitalditik dator ia osorik, eta haren jatorria kontabilitate publikoaren irekiera-idazpena da; izan ere, alta egoera eman zitzaion aktibo eta pasiboko hainbat konturi, aplikatu gabeko kontusailen kontu horren kargura. Halaber, 2002, 2003 eta 2004ko ekitaldietan ere idazpen zuzenak egin dira kontu horren kargura.

Udalak ez du aplikatu gabeko kontusailen kontuari egotzitako mugimenduen jarraipenik, ezta, kasua bada, arazketarik ere; hori dela eta, ez da ezagutzen horien saldoa.

- Bankuen kontabilitate-saldoak banku entitateek berretsitako saldo errealak baino 125.148 euro gehiago egiten du. Saldo horien artean ez da berdinkatzerik egin.

- Itxikako kreditu-kontu bat agertzen da, 7.085 euroko saldo negatiboarekin kontabilizatuta.

- Udalak 136.314 euroko zenbateko bat erregistratu du bere kontabilitate egoera-orrietan, baina bi banku-konturen saldoari dagokio, eta haren titularra Lurzoruaren Udal Patronatua da.

Kontu horien saldoa 12.593 eurokoa zen 2004ko abenduaren 31n.

- 2004ko ekitaldian, udalak 15.062 euro ordaindu ditu banku-kontuen zor egoerak eragindako interesengatik.

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Aplikatu gabeko kontusailen kontuko 2.936.962 euroko saldo zorduna aztertzea eta araztea, eta bertan soilik erregistratzea sortzen diren unean kasuan kasuko kontzeptuei behin betikoz ezin aplika dakizkiekeen dirusarrera eta gastuak, eta, horrenbestez, behin-behinekoz aplikatu behar direnak.*

- *Behar bezala dokumentaturiko banku-berdinkatzeak egitea, finantza-entitate bakoitzean diruzaintzako saldo erreala eta kontabilitatekoa erkatu eta bi saldo horien arteko aldeak azaldu ahal izateko.*

- *Soilik titular gisa udala duten banku-kontuak erregistratzea eta, horrenbestez, Lurraren Udal Patronatuaren kontuak ez sartzea.*

- *Funtsez baliatzeko baimena duten pertsonen sinadura mankomunatua ezartzea.*

- *Banku-kontuan saldoen jarraipena egitea, haien arteko funts intsuldaketak egiteko eta banku-kontuen zor egoerak eragindako interesak ordaintzea saihesteko.*

VI.2.4. Abalak eta bermeak

Egoeraren balantzeko ordena-kontuen sailean udalak 2002. urtean igerilekuko obrak egiteko eman zuen abal bat agertzen da, 108.182 eurokoa, 2004ko ekitaldiko amaieran kitatuta zegoena.

Gure gomendioa da abalaren kitatzea kontabilitatean erregistratzea eta haren saldoa ezereztea.

VI.2.5. Zorrak

Hona hemen egoeraren balantzeko pasiboan jasotako udalaren zorrak, abenduaren 31n:

	Saldoa 2004ko abenduaren 31n
Epe luzerako zorrak	316.705
Epe laburreko zorrak:	
2004ko aurrekontuko hartzekodunak	307.090
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak	192.949
Entitate publikoak	8.447
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak	16.811

Balantzearen pasiboan islaturiko epe luzeko zorren saldoa, 316.705 eurokoa, ez dator bat 2004ko abenduaren 31n itzuli gabe zeuden maileguen saldo errealarrekin. Horien arteko aldea 547.366 eurokoa da, ondoko taula agertzen den moduan:

Entitatea	Itzuli gabeko zenbatekoa 2004ko abenduaren 31n (eurotan)	Mugaeguneratze-urtea
Nafarroako Kutxa	85.967	2019
Nafarroako Kutxa	432.729	2010
Banco Santander Central Hispano	345.375	2018
Epe luzeko zor bizia, guztira	864.071	
Balantzeko epe luzeko zorra	316.705	
Aldea	547.366	

Balantzeko pasiboan agertzen diren epe luzeko zorren artean sartu da 2004ko abenduaren 31n hiru hilabeterako itundu zen 250.000 euroko diruzaintzako mailegua. Diruzaintzako maileguaren zenbatekoa 2003ko ekitaldian eragiketa arruntak direla-eta aitortutako dirusarreraren % 15 baino handiagoa da, eta, horrenbestez, beharrezkoa da osoko bilkurak onestea. Ez dago jasota osoko bilkuraren erabakirik gai horri buruz, ezta Kontu-hartzailetzako txostenik ere, non aztertzen den udalak itundutako diruzaintzako mailegutik heldu diren betebeharrei aurre egiteko duen gaitasuna.

Itxitako aurrekontuen hartzekodunak, 192.949 euro guztira, 1998tik 2003ra bitartean sorturiko betebeharrei buruzkoak dira, eta honako kontzeptuok osatzen dituzte nagusiki:

- Musika Patronatuari 2001, 2002 eta 2003. urteetan eginiko ekarpena: 71.752 euro.

- Lurraren Patronatuari 2003. urtean eginiko ekarpena: 38.899 euro. Zenbateko hori ez da ageri patronatuaren kontabilitatean kobratzeko dagoen dirusarrera gisa.

• 2002. urtean eginiko industrialdeko hargunea: 30.741 euro

Hauxe gomendatzen dugu:

• *Epe luzeko zorraren saldoa zuzentzea, 2004ko ekitaldiaren amaieran epe luzeko zor biziaren zenbateko erreala isla dezan.*

• *Ordaintzeke dauden aurreko ekitaldietako betebeharren saldoa berrikustea eta araztea, hala behar izanez gero.*

• *Diruzaintzako eragiketak aurrekontuz kanpoko eragiketa gisa kontabilizatzea.*

• *Kreditu eragiketa guztiak, diruzaintzako eragiketak, bestek bete, Toki ogasunei buruzko Legean ezartzen den organo eskudunak itun ditzan adostea, itundutako zenbatekoaren arabera eta kontuhartzaitzak txostena eman ondoren. Txosten horretan udalak itundutako kreditu eragiketetik heldutako betebeharrei denboran aurre egiteko duen gaitasuna aztertu behar da.*

VII. ERAKUNDE AUTONOMOEI ETA UDAL ENPRESA PUBLIKOARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan azaltzen dira udal erakunde autonomoen, Musika Eskolaren, Lurraren Udal Patronatuaren eta udal enpresa publikoaren kontabilitatearen legezketasunari eta egoera finantzarioari buruz eginiko fiskalizazio lanetik heldu diren ondorio nagusiak, bai eta erakunde horien finantza-jardueraren kudeaketa hobetze aldera ganbera honek egiten dituen gomendioak ere.

VII.1. UDAL MUSIKA ESKOLA

Gares Udal Musika Patronatua 1991. urtean sortu zen.

Musika Patronatuaren 2004ko ekitaldiko kontuak ez dira egin kontabilitate instrukzio orokorrean ezarritako kontabilitatearen egoera-orriak baliatuta, eta ez dira udalera igorri 2005eko martxoaren 31 baino lehen. 2004ko dirusarreraren eta gastuen zerrenda bat –ordainketa eta kobrantza eguna adierazirik– baizik ez dago jasota.

Musika Patronatuaren 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren betetze egoera finantzen txosten honetako V. atalean agertzen da.

2004. urtean **aitorturiko eskubideek** 171.476 euro egiten dute, aurreko ekitaldian baino % 6 gutxiago alegia. Betetze maila dirusarreraren aurrekontuko hasierako aurreikuspenen % 96koa da. Aitorturiko eskubideen % 81 kobratu da. Gainerakoa, kobratzeke dagoena –32.234 euro–, Garesko Udalak patronatuari eman beharreko dirukaguntza da.

2004. urtean **aitorturiko betebeharrak** 145.805 euro egiten dute, aurreko ekitaldian baino % 5 gutxiago alegia. Betetze maila gastuen aurrekontuaren % 82koa da. Bere osotasunean ordaindu dira.

2004ko ekitaldiko **aurrekontuaren emaitza** 25.671 eurokoa da, aurreko ekitaldian baino % 8 gutxiago.

Hona Musika Patronatuak 2004an aitorturik zituen eskubideak eta betebeharrak, eta 2003. urtearekiko aldea.

Dirusarrerak	Aitorturiko eskubideak (2004)	Ehunekoa, guttizkoaren gain	2003. urtearekiko aldea, ehunekotan
Ikasleen matrikulak	82.715	48	-14
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	34.422	20	31
Udalen dirulaguntza	54.339	32	-8
Guztira	171.476	100	-6

Gastuak	Aitorturiko betebeharrak (2004)	Ehunekoa, guztizkoaren gain	2003. urtearekiko aldea, ehunekotan
Langile gastuak	123.970	85	-10
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	11.202	8	-15
Korrituak	1.114	1	2003. urtean, 0
Transferentzia arruntak	355		
Inbertsioak	2.718	2	Alderik ez
Finantza-pasiboen aldea	6.446	4	2003. urtean, 0
Guztira	145.805	100	-6

Musika Patronatua fiskalizatzean hautemandako hutsune nabarmenenak honakoak dira:

- Udalak ez du barne kontrolik egiten Musika Patronatuaren kudeaketa ekonomikoari dagokionez.

- Udalak 32.234 euroko ekarpen bat zuen egitekoea, eta dirusarrera gisa kontabilizatu da; ekitaldia ixtean, diru hori kobratzeko dago. Udalak, berriz, ekarpen hori ordaintzeko gastu gisa kontabilizatu du.

- Udalaren areto bat alokatzeagatik, 9.015 euroko gastua kontabilizatu da; gastu hori ez da sortu eta patronatuak udalari ere ez dio ordaindu.

- Ez da patronatuaren plantilla organikoa onetsi.

- Patronatuari dagozkion Gizarte Segurantzako bi hilabeteko gastuak ez dira kontabilizatu; 10.118 euro egiten dute.

Beraz, hona gure gomendioak:

- *Urteko kontuak kontabilitate instrukzio orokorrean ezarritako agiri eta kontabilitatearen egoerari guztiekin prestatzea, eta udalari hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen igortzea.*

- *Barne kontrola gauzatzea patronatuaren kudeaketa ekonomikoari dagokionez.*

- *Eska ditzakeen betebeharrak badauzka patronatuak, horiek aitortzea, bai eta kobratzeko eskubidea ematen duten dirusarreak ere.*

- *Ekitaldian zehar sortutako gastu guztiak kontabilizatzeko.*

- *Plantilla organikoa urtero onestea.*

VII.2. LURZORUAREN UDAL PATRONATUA ETA UDALAREN ENPRESA PUBLIKOA

VII.2.1. Patronatuaren eta sozietate publikoaren eratzia

Lurzoruaren Udal Patronatua udalaren erakunde autonomoa da; 2002ko otsailaren 1ean eratu zen, osoko bilkuraren erabakiz, eta honako helburuok ditu:

- Lurzoruaren merkatuan esku hartzea Garesen.

- Garesko Udalaren ondare-ondasun eta -esku-bideen multzoari eustea eta hori handitzea.

- Udalarekin lankidetzan aritzea hirigintza planamenduaren garapenarekin eta exekuzioarekin zerikusia duten administrazio-espeditanteetan, edota tributu-kudeaketarekin zerikusia dutenetan; lankidetzan aritzea, era berean, udalaren interesekoak diren obretan, edo hornidura edo ekipamendu publikoak jartzeari eta/edo finantzatzeari dagokionez.

- Herritarrei aholku ematea hirigintza-kudeaketarekin zerikusia duten gaietan, eta etxebizitzaren sustapen, zaharberritze eta/edo egokitzearekin zerikusia dutenetan.

Patronatuaren kapitala, batetik, udalak hasieran esleitutako ondasun eta eskubideek osatzen dute, eta, bestetik, kapital horri ondoren eginiko ekarpenek.

Patronatuaren estatutuek ezartzen dutenez, patronatuak udalaren osoko bilkurari proposatzen ahalko dio merkataritza-sozietate publikoak era-

tzea eta patronatuaren helburuen zenbait alderdi esleitzea.

2002ko apirilaren 26an, Garesko Udalak “Servicios urbanísticos de Puente La Reina Gares, SA” sozietate anonimoa sortzea erabaki zuen. Enpresa 60.102 euroko kapitalarekin sortu zen –kapitala udalarena zen erabat–, eta helburu soziala hirigintzaren arloko kudeaketa- eta sustapen-jarduerak egitea zen; honelakoak, adibidez:

- Hirigintza azterketak egitea; hirigintza planeamenduko tresnak idaztea.
- Jarduera urbanizatzailea.
- Urbanizatzearen ondorio diren obren kudeaketa eta ustiapena.
- Lurzatiak besterentzea, bai eta orubeak, industria nabeak zein etxebizitzak sustatu eta erakitzea ere.

Eskuratu diguten eskritura sozietatearen eratze-eskrituraren kopia soila da, eta 2002ko uztailearen 23a du notarioaren data. Sozietateak, eskritura horretan ezartzen denez, inskripzioaren unetik beretik izanen du nortasun juridikoa; inskripzio hori sozietatea eratzen duen eskritura eman eta bi hilabeteko epean egin beharko da.

Estatutuen arabera, sozietatearen iraupena mugagabea da, eta Merkataritza Erregistroan inskripzioa egindako egun berean hasiko da sozietatearen jarduna.

“Servicios urbanísticos de Puentes La Reina Gares, SA” izeneko sozietatea ez zen Merkataritza Erregistroan inskribatu. Eratze-eskritura bitan aurkeztu zen Erregistroan, 2002ko irailaren 19an eta 2003ko maiatzaren 22an, eta akatsak eta hutsunak zituelako baztertu egin zen; horren ondorioz, merkataritza-erregistratzaileak sozietatea ez inskribatzea ebatzi zuen.

2002-2004 epean, sozietate horren administrazio-kontseiluaren bilera bat besterik ez dago jaso; izan ere, kontseiluaren akta bakarra eskuratu zaigu, inongo sinadurarik gabe. Akta hori 2002ko irailaren 27koa da.

2004ko apirilaren 20an, udalaren osoko bilkurak “Sociedad municipal de gestión de servicios Puente La Reina/Gares, SA” izeneko sozietate anonimoa sortu zuen, Lurzoruaren Udal Patronatuaren menpean, “lehen sortu eta Nafarroako Merkataritza Erregistroan inskribatzeke gelditu zenari azken formalizazioa” ematearren. Sozietatearen eratze-eskritura 2004ko irailaren 14an eman zen, eta Merkataritza Erregistroan 2005eko martxoaren 10ean inskribatu zen.

Sozietatea 60.102 euroekin eratu zen; udalak diru hori 2004ko abuztuaren 10ean helarazi zion sozietateari, patronatuaren bidez. Biharamunean, 2004ko abuztuaren 11n, sozietateak diru hori patronatuari itzuli zion.

EGINIKO ERAGIKETA EKONOMIKOAK

Ez Lurzoruaren Patronatuak ez udal sozietate-erakunde biek ere ez dituzte kontabilitate inskripzio orokorrean ezarritako kontabilitatearen egoera-orriak sortu, eta, beraz, ez dira udalaren kontu orokorrean txertatu.

Dagoen bakarra da 2002tik 2004ra bitarteko ekitaldietan eginiko eragiketen zerrenda (gastuak eta dirusarrerak); eragiketa horiek patronatuari eta sozietateari batera egotzi eta ez daude behar bezala bereizita.

2002tik 2004ra bitarteko epean, Lurzoruaren Patronatuari eta “Servicios urbanísticos de Puente La Reina Gares SA” sozietateari batera egotzitako eragiketak hauek dira:

a) Dirusarrerak

* Hiri lurzoruko 15.JM eta 16.JM unitateei dagozkien lurzatiaren eta hirigintza-eskubideen besterentzea, 978.832,36 eurotan guztira; 2002ko irailaren 30ean egin zen eragiketa.

Prezioa eraiki nahi ziren 43 etxebizitzaren arabera ezarri zen; %30 eskura pagatu behar zen, eta gainerako %70 salmenta kontratua sinatu eta bi hilabeteko epean; kontratua 2002ko irailaren 30ean sinatu zen. Bi hilabeteko epe hori bera ezarri zen salmentaren eskritura publikoa formalizatzeko.

Eragiketa hau berrikustean, egiaztatu dugu guztirako prezioaren %70, 685.183 euro hain zuzen, 2005eko ekainean kobratu direla, eta salmentaren eskritura publikoa ere hilabete horretan formalizatu dela, hots, ezarritakoa baino bi urte eta erdi geroago. Bestalde, bai kobrantza eta bai salmentaren eskritura ere udalaren sozietate berriaren izenean egin ziren; sozietatea 2004an eratu zen. Horri dagokionez, “Sociedad municipal de gestión de servicios Puente La Reina/Gares, SA” sozietatearen administrazio-kontseiluak 2005eko maiatzaren 20an eginiko bileran –sozietatea 2004ko apirilean eratu zen, eta Merkataritza Erregistroan 2005eko martxoan inskribatu zen–, aztertutako salmenta hori berrestea erabaki zen.

Salmenta kontratua 2002an eratutako sozietateak –erregistroan inskribatu ez zenak– sinatu zuten: “Servicios urbanísticos de Puente La Reina Gares, Sociedad Anónima Municipal”. Salmenta, ordea, sozietatea eratzea erabaki baino lehenago

kudeatu zen, Ogasun Batzordeak 2001eko azaroaren 15ean eginiko bilerako aktan jasota dagoenez, non erosleak eskainitako prezioa ageri baita; aztertutako salmenta, azkenean, prezio horretan egin zen. Era berean, udalak 2001eko azaroaren 20an eginiko osoko bilkura berezian, eginiko kudeaketa berretsi eta eroslearekin adostutako besterentze baldintzak onetsi ziren. Azkenik, udal enpresaren administrazio-kontseiluak, 2002ko irailaren 27an eginiko bileran, salmentari buruz informatu eta eztabaidatu zuen; administrazio-kontseiluak, horrela, lurzatiak eroslearekin hitzartutako baldintzetan besterentzea onetsi zuen, eta “onetsitakoaren antzeko” beste kontratu bat egitea.

Udalak, aurretik, 2000. urtean, besterendutako lurzatiak eskuratu zituen. Lurzati horien titulartasuna “Servicios urbanísticos de Puente La Reina/Gares, Sociedad Anónima Municipal” enpresari egozten zaio.

Lurzatiak saldu zirenean, 2002. urtean, formalizatu gabe zegoen erosketaren eskritura; eskriturak 2005eko ekainean formalizatu ziren, udalaren enpresa berriaren izenean.

* Udalak Zabaltzagain inguruan zuen lurzati baten hirigintza-eskubideen salmenta –udalak birzatiketa prozesu batean eskuratua zuen haren titulartasuna–; salneurria 552.871 eurokoa izan zen, gehi BEZaren 88.459 euro.

Salmenta hori honako egunetan eta entitateetan kobratu zen:

- 192.399 euro, 2002ko urriaren 17an, Garesko hirigintza-zerbitzuen sozietatearen kontuan.
- 448.931 euro, 2003ko abenduaren 13an, Lurzoruaren Patronatuaren kontuan.

“Servicios urbanísticos de Puente La Reina Gares, Sociedad Anónima Municipal” sozietatearen administrazio-kontseiluak, 2002ko irailaren 27an, aktan jasota dagoenez, zenbait sustatzaileekin izaniko elkarrizketei buruz jardun zuen; azkenik, eroslea izanzen zenak soilik egin zuen eskaintza. Aktan ez da aurkeztutako eskaintza ageri; administrazio-kontseiluaren bileran eskaintzaren zehaztasunen berri eman zela besterik ez da aipatzen. Bilera horretan, Zabaltzagain inguruko hirigintza-eskubideak besterentzea onetsi zen.

b) Lurzoruaren Patronatuak-Sozietateak jasotako **gastuen artean** kirol pista urbanizatzearen lanak ageri dira, 34.953 euroko zenbatekoarekin; gastu horiek udalak egin zituen.

Eragiketa horiek aztertutik, ondoko ondorioak atera dira:

- Lurzatiak eta hirigintza-eskubideak Merkataritza Erregistroan inskribitu gabeko sozietate baten izenean saldu ziren, eta, beraz, nortasun juridikorik gabeko sozietate baten izenean. Lurzoruaren Patronatuak 2005eko urtarrilaren 20an eginiko batzarreko aktan, JM15 eta JM16 unitateetan erakitzekeo eskubideen salmentari dagokionez, honako ageri da: “eratzen ari zela egin zuen udal sozietateak eskualdatzea, baina azkenean ez zen eratu, eta, beraz, orain, sozietate berriak edo patronatuak berak hartu beharko lituzke bere gain horri buruzko kudeaketak eta horien formalizatzea”. Salmenta 2005. urtean formalizatu zen, 2004ko apirilean eraturako udal sozietate berriaren eskutik.

Sozietatea Merkataritza Erregistroan inskribatu aurreko egintzen eta kontratuen erantzulea bazkidea da; kasu honetan, udala.

Lurzatiak eta hirigintza-eskubideen salmentek, beraz, udalari aplikatzekoak diren legezko betekizuna bete behar dituzte, Toki administrazioari buruzko Foru Legean ezarrita baitaude, eta kasuan kasuko espedientea ireki beharko da. Horri dagokionez, hauek dira bete gabe ageri diren betebeharrak:

- Baldintza administratiboen orria onestea.
- Ondasunen besterengarritasunaren alde aurreko adierazpena.
- Besterentzekoak diren eskubideen balorazio teknikoa, horien balio justua frogatuko duena.
- Besterendutako lurzatiak eta eskubideak enkante bidez beharrean –legediak hori ezartzen du– zuzenean esleitzea justifikatzen duten salbuespenezko arazoak.

JM15 eta JM16 unitateen titulartasuna “Servicios urbanísticos de Puente La Reina Gares, Sociedad Anónima Municipal” enpresari egotzi zitzaion. Enpresa hori ezin zen unitate horien titularra izan, ez baitzegoen Merkataritza Erregistroan inskribatuta, eta, beraz, nortasun juridikorik ez baitzuen.

Ez betetze horiek ikusita, ondoriozta daiteke udalak ez duela legea bete aztertutako lurzatiak eta eskubideen salmentan.

Bestetik, patronatuak eta sozietateak batera kontabilizatu dituzte kirol pistaren urbanizatze gastuak, eta gastu horiek udalarenak dira.

Udalaren lurzoru-ondareari dagokionez –Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko 35/2000 Foru Legean dago araututa; bestalde, Lurzoruaren Udal Patronatua sortu zen horren kudeaketarako–, ez da erregistrorik ageri jasota dituenik sartutako lurzati edo dirusarrerak

eta aipatutako foru legean ezarritako xedeetarako justifikaturiko irteerak.

Lurzoruaren Udal Patronatuan bi lurzati besterik ez dira ageri.

Hona gure gomendioak:

- *Ondasunen besterentzeari dagokion legedia betetzea.*

- *Ondasunen inbentarioan, haren izaera lotua eta berezia adierazita, udalaren lurzoru-ondarea osatzen duten ondasun guztiak jasotzea.*

- *Halaber, udalaren lurzoru-ondarearen erregistro bat sortuko du udalak, eta bertan jasoko dira sartzen diren lurrak edo dirua, eta baita Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legean ezarritako xedeetarako justifikaturiko irteerak ere.*

- *Lurzoruaren Patronatuaren eta Udal Sozietatearen urteko kontuak bereizirik gauzatzea, kontabilitate instrukzio orokorrean ezarritako agiri eta kontabilitatearen egoera-orri guztiekin, eta udalaren kontu orokorrean sartzea, hurrengo ekitaldiko irailaren 1a baino lehenago onets daitezten.*

VIII. AZKEN ONDORIOA

Txostenean adierazitako irregulartasunak eta ez betetzeak konpontze aldera, hona gomendioak:

- *Administrazio-kontratazioan, legedia betetzea; udalaren, dituen erakunde autonomoen eta udal enpresa publikoaren kontuak egitea; eta errespetatzea gastuen izaera mugatzailea, baita txostenean zehar nabarmendutako beste alorretan ere, hala nola langileak, transferentziak eta dirusarrerak.*

- *Udalaren, dituen erakunde autonomoen eta udal enpresa publikoaren kudeaketa ekonomikoari dagokienez, toki entitateen barne kontrolerako eginkizunak betetzea, Foru ogasunei buruzko Foru Legean zehaztutako hedadura eta ondorioekin; kontrol eginkizun horiek hiru alderdi dituzte: kontu-hartzailatza, finantzen kontrola eta eraginkortasunaren kontrola.*

Horri gagozkiola, kontu-hartzaile bat kontratatzea gomendatzen dugu barne-kontrola eta -fiskalizazioa gauzatze aldera; horrela hobetu egingen

da udalaren kudeaketa ekonomia- eta finantza-arloetan, aurrekontuarenean eta kontabilitatearenean.

Udalak hirigintza kudeatu du Lurzoruaren Udal Patronatuaren bidez eta 2002an sortutako udal-enpresa publiko bat bidez, zeina ez baitzen inskribatu Merkataritza Erregistroan eta 2004an beste enpresa publiko batean bihurtu baitzen; antolamendu horrek ez du kudeaketa gardenik eragin ente horiek hirigintza arloan egindakoetan.

Lurzoruaren Patronatuaren eta sozietate publikoaren kontabilitatea batera egiten zen, eta ez zen bereizten zer dirusarrera eta zer gastu zegokion bi entitate horietako bakoitzari.

Lurzoruaren eta hirigintza-eskubideen salmentak Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresak egin zituen, eta bi urte beranduago formalizatu ziren beste udal-enpresa publiko baten bidez.

Salmenta horiek eragindako dirusarrerak bi udal-enpresa publikoen kontuetan ordaindu ziren, bai eta Lurzoruaren Patronatuaren kontuan ere, eta kobrantzarako ezarritako epetik kanpo.

Antolamendu konplexu horrek zaildu egin du udalaren kudeaketa eta kontrol egokia, eta gauzaturiko hirigintza-jardueren kontabilitatea ez dago argi eta behar bezala jasota.

Beraz, hau da gure gomendioa: *udalak bere burua antolatzeke ahalmena duenez bai eta autonomia ere zerbitzu publikoa kudeatzeko modua aukeratzeko, azter dezala gaur egun zerbitzu publikoak emateko duen modua, alegia erakunde autonomoen eta enpresa publiko baten bidez, interes publikoarekin egokiago lotzen den kudeaketa modua ezartze aldera. Kudeaketa eredu horrek eraginkortasun eta efizientzia irizpideak izan behar ditu oinarrian, legezotasuna errespetatu behar du eta hartutako neurriaren komenigarritasuna eta egokitasuna egiaztatatu.*

Txosten hau auditore M^a. Asunción Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

GARESKO UDALAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Garesko alkate Eva Erro Ochoa andreak, udalaren 2004ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenari dagokionez, zeina 2006ko maiatzaren 22an jakinarazi baitzen, Comptos Ganberaren aurrean agertu eta honako alegazioak egiten ditu:

LEHENA. Udal honen ustez, "behin-behineko txostenak" fiskalizatu dituen jarduketak egoki ulertzeko, udalak jarduketa horiek formalizatzeko eta exekutatzeko izan dituen bitartekoak hartu behar ditu aldez aurretik kontuan. Horrela, garrantzia handia dute, zalantzarik gabe, honako bi zirkunstantziok:

1. Udalaren plantilla organikoan kontu-hartzaile lanpostua hutsik ageri da, eta, Nafarroako Gobernuak abian jarritako hautatze prozesua amaitu bitartean, lanpostu hori ezin da bete, eta udalak ezin du horri buruz ezer egin. Horrenbestez, lanpostu hori arauzko moduan betetzea ezinezkoa den bitartean, idazkariak egin behar ditu -ezinbestez- eginkizun horiek, hau da, udalaren kontrola, barne fiskalizazioa, ekonomia- eta finantza-arloetako kudeaketa, aurrekontuarena eta kontabilitatearena. Garesen moduko herri batean, ordea, pertsona batengan horrek eragiten duen gainkarga objektiboki da eraman ezinekkoa. Geure borondatez gertatu ez den zirkunstantzia horrek, nahitaez, irregulartasunak eragin ditu. Beraz, bitarteko egokirik ez dagoen bitartean, helburuak ezin du izan irregulartasunik ez egotea, baizik eta irregulartasun horiek formalak izatea soilik, eta inola ere ez materialak. Beraz, gure iritziz ez du zentzurik azken ondorio gisa ematea aldez aurretiko faktore baldintzatzailea dena, hots, kontu-hartzaile lanpostu hutsa bete ezina.

2. Aurrekoari, bestalde, egoera larritu zuen beste zirkunstantzia bat gehitu behar zaio: Udalak, fiskalizatutako jarduketak egiteko, Animsa sozietatearekin kontratatatu behar izan duen programa informatikoaren akatsak; nabarmendu genuen auditoria egitean.

Gure ustez, abiapuntu gisa hartu beharrekoa da, nahitaez, nahikoa baliabiderik ez dela izan, ez giza-baliabiderik ezta materialik ere, ikuskatu diren jarduketak zuzen gauzatzeko, eta udalak ezin izan duela hori aldatu.

BIGARRENA. Udal honen ekonomiaren eta finantzen benetako egoerari dagokionez, eta txosteneko "Iruzkinak" eta "Azken ondorioa" ataletan aipatuakoz denaz bezainbatean, argi eta garbi adieraztekoak dira honakoak:

a) Txostenean aipatutako irregulartasun formalek ez dute inongo ondorio materialik izan udalaren ondareari edo ekonomiari dagokionez. Giza baliabide eta baliabide material gutxi izanda ere, eta urritasun horrek eragindako hutsuneak gorabehera, ez zaio inongo kalte ekonomikorik eragin udalari, eta justifikatu gabeko inongo gasturik ere ez dago.

b) Era berean, esan behar da, udalak, betiere, ordainketa guztiak egin ahal izan dituela. Ez da dudarik irregulartasun formalak garrantzitsuak direla eta justifikazioa behar dutela, eta, ahal bezain laster, konpondu egin behar direla. Baina alkate honentzat eta herritarrentzat interesgarriagoa da jakitea udalaren ekonomia onbideratua dagoela eta hurrengo urteetarako hitzartuak dituen gastuei aurre egin ahalko diela.

HIRUGARRENA. "Behin-behineko txostenaren" azterketa zehatzagoari dagokionez, txostena aipatutakoekin osatu behar dela nabarmendu ondoren, honako alegazioak egin behar ditugu:

a) 8. orrian azaltzen da udalak enpresa publiko bat eratu zuela 2002an eta ez zela Merkataritza Erregistroan inskribatu; ez da azaltzen, ordea, eta hala behar luke, udalak aurkeztu zituela eskriturak Merkataritza Erregistroan, sozietate hori inskribatzeko, eta ez dira agerten Merkataritza Erregistroak sozietatea ez inskribatzeko eman zituen arrazoi zehatzak. Beraz, eskatzen dugu txosteneko informazioa datu horiekin osa dadila.

b) 15 JM eta 16 JM unitateetako hirigintza-eskubideen salmentari buruz eta Zabaltzagainen (AR-4) eginikoari buruz, honakoak aipa daitezke

– Salmentak egin zituen sozietatea ez zegoen Merkataritza Erregistroan inskribatuta baina bai zegoen eratuta, eta hori aurreikusita dago bai legedian, bai estatutuetan.

– Udalak beti izaten zuen kontuan salmentak negoziatzeko beharra titulartasuna erregistratu aurretik; izan ere, eskualdatzearen dirua beharrezkoa baitzen eskuratzeak finantzatzeko.

– Salmenta horiek bazuten nahikoa ezaugarri tekniko enkanterik egin behar ez izateko, eta, horren orde, alkateak eta idazkariak zenbait sustatzaile pribaturi modu pertsonalean eskaintza egiteko. Idazkaria, izan ere, higiezin merkatuaren arloko teknikaria ere bada (higiezin jabetzako agente elkargokidea –hogeita hamar urte inguru eman ditu erakunde ofizialetarako bitartekaritza eta balioespenak egiten, hala nola magistraturarako, epaitegirako, Merkataritza Erregistroarako, etab.–, eta, halaber, administrazio- eta hirigintza-zuzenbidean eskarmentua duen abokatua ere

bada –beste horrenbeste urtez aritu da horretan–; bide batez, esan dezagun, eginiko lanagatik ez zuela inongo ordainsaririk kobratu), eta elkarrizketa horien guztien berri udalbatzari eta/edo sozietateari eman zitzaien.

Elkarrizketa horien berri eman zela ageri da, adibidez, udalak 2002ko urtarrilaren 21ean izaniko Gobernu Batzordearen aktan, non berariaz aipatzen baita zer bost sustatzailerekin ari zen hitz egiten, edo 2001eko azaroaren 25ekoaren aktan, non eskuratzeko aukera eskaini zitzaien beste bost enpresen izenak aipatzen baitira.

– Eskualdatzearen prezioari dagokionez, esan behar da hirigintza-aprobatxamenduaren unitate-rako udalak 1999tik ezarri zuenarekin bat etorri zela; hori urtero berritu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen da.

– Balio hori, herrian, Osoko Bilkurak 1999ko urtarrilaren 29an hartutako erabakiaren bidez ezarri zen. “GARESKO UDALAK urtero ezarriko du APROBETXAMENDU UNITATEAREN balio ekonomikoa.

1999rako, APROBETXAMENDU UNITATEAREN balio ekonomikoa HOGEI MILA PEZETATAN (20.000 PTA) ezarri da.”

– Artzapezpikutzari eginiko erosketan ere balio hori erabili zen, negoziaketan aurkeztu zituzten beste balioespen batzuk baztertuta.

Aurreko horiek guztiak agiri bidez justifikatu ziren, besteak beste, Comptos Ganberari maiatzaren 11n helarazitako dosierrean; zehazki, honako atalak:

2.2. Eskubideen salmenta

2.2.1. Udalaren batzordeetan, osoko bilkuretan eta abarretan eginiko eskubide salmentei buruzko zenbait aipamen.

2.2.2. Udalak aprobetxamendu unitatearen balio ekonomikoa ezarri izana, eskuratzeko pribatua ezinezkoa duten aprobetxamenduei ordain ekonomikoa ematea aldera.

2.2.3. 15 eta 16 JM (Julián de Mena) unitateetako aprobetxamenduak.

2.2.4. Zabaltzagaineko (AR-4) aprobetxamenduak.

Azkenik, eskerrak eman nahi genizkioke Comptos Ganberari eta, bereziki, auditorian parte hartu eta txostena egin duten teknikariei, haien profesionaltasunagatik eta izandako jokabideagatik. Alkate honek gomendioak eta ondorioak aholku gisa hartuko ditu, horiek gauzatuz Garesen administrazioa eraginkorragoa izanen delakoan, eta hobe, orobat, herritarrarenganako zerbitzua.

Gares, 2006ko ekainean

Alkatea: Eva Erro Ochoa

Garesko Udalak aurkezturiko alegazioen erantzuna

GARESKO UDALARI BURUZKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA

Garesko Udalak behin-behineko txostenari aurkeztu dizkion alegazioak aztertuta, Nafarroako Comptos Ganberak ondokoa adierazi nahi du:

a) Hirugarren alegazioko a) letrari dagokionez, txostenaren 37. orrian aipatzen da eratze eskritura bitan aurkeztu zela Merkataritza Erregistroan eta akatsak eta hutsuneak zituelako baztertu zela.

b) Hirugarren alegazioko b) letrari dagokionez, Comptos Ganberak adierazi beharra du azterketa lana egin bitartean ez zitzaiola eskuratu besterendutako eskubideen eta lurzatien balioespen teknikoa. 2006ko maiatzaren 11n, eta txostenaren zirriborroa eztabaidatzen ari zelarik, udalak agiri horiek aurkeztu zituen, egunik eta sinadurarik gabe, non adierazten baita besterendutako ondusunen balioespina udalak 1999an onetsi zuen aprobetxamendu unitatearen balioaren arabera –balioa 2002rako eguneratuta– egin zela.

c) Gure ustez, aurkeztutako alegazioak txostenean jasotako datu eta informazioen azalpena eta luzapena dira, eta ez dituzte ez kontrajartzen ezta aldatzen ere txostenaren ondorioak.

Horrenbestez, alegazioak txostenari gehitu dizkiogu eta txostena behin betikotzat jo da.

Iruñean, 2006ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	